



*Ajangizko Udala*

## **AJANGIZKO UDALAK 2008KO AZAROAREN 27AN OSPATUTAKO OHIKO BILKURAREN AKTA.-**

**Batzarreratuak:**

**Alkatea:**

*Koldo Carbonell Oihartzabal jauna*

**Zinegotziak:**

*Angel Luis Uribarri Gondra jauna  
Maria Angeles Goikolea Uriarte andrea  
Beñat Erezuma Arisketa  
Jasone Bernaola Aurrekoetxea  
Roman Etxeandia Zabala*

**Idazkaria:**

*Saioa Pineda Aranburu andrea*

Ajangizko Udaletxean, 2008ko azaroaren 27an arratsaldeko 20:00etan eta horretarako deidaldia egin ondoren, Udal Osoa biltzen da ohiko bilera ospatzeko, goian aipatutako zinegotziekin.

Esandako orduan, Alkate Presidenteak gutxienezko kopurua dagoela ikusita, hasiera ematen dio bilerari.

### **1.- AZKEN BILERAKO AKTA IRAKURRI ETA ONEZTEA, BEHAR BADA.-**

2008ko urriaren 23an izandako ohiko bileraren akta hautespenerako jarrita, bertaratutako zinegotzi guztien botoekin, onartuta geratzen da.

### **2.- ALKATETZAK EMANDAKO DEKRETUEN BERRI EMATE ETA ONEZPENA, BEHAR BADA.-**

- **Urriaren 20ko 2008/94 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Abadetxe aurreko urbanizazio lanak direla eta INCONOR S.L. enpresak jarritako Caixa de Galiciako, bermeen errolda berezian 173.360 zenbakiarekin jasotako 2006ko abuztuaren 1eko 5.909,40 euroko bermea itzultzea.
- **Urriaren 23ko 2008/95 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** S.A.ri BI-3213-BX ibilgailuaren 2007 eta 2008 urtetako Trakzio Mekanikodun ibilgailuen gaineko zerga bueltatzea.



*Ajangizko Udala*

- **Urriaren 23ko 2008/96 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Polikiroldegiko kuotaren ordainketarako aurkeztutako laguntza eskaerak onartzea, Gernika-Lumoko Udal Polikiroldegiko kuotaren erroldatu eta erroldatu gabeen arteko diferentzia ordaintzea onartuz, Gernika-Lumoko Polikiroldegiko zuzendariak egindako ziurtagiriak aintzat hartuta.
- **Urriaren 23ko 2008/97 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** M.M.Z.k egindako eskaera onartu eta 2008ko ohiko etxebizitzaren ondasun higiezinaren gaineko zergaren familia ugarietzako laguntza ematea.
- **Urriaren 23ko 2008/98 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** J.I.E.S.k eta Marta Moreno Zameza andreak egindako eskaera onertu eta 2008ko ibilgailuen gaineko zergaren familia ugarietzako laguntza ematea.
- **Urriaren 29ko 2008/99 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Euskal Herriko ingurugiroa babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege orokorrean jasotzen den jarduerarako lizentzia eskuratzetik salbuesitako jardueren zerrenda finkatzen duen martxoaren 9ko 165/1999 Dekretuko IV. Eranskinak eskatzen duen dokumentazio teknikoa aurkeztu dela kontutan hartuta U.Elean Tangako G.L.P. biltegiaren instalazioen jarduerarako baimena ematea Bizkailur S.A.ri.
- **Azaroaren 5eko 2008/100 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** BIZKAILUR S.A.k eskatutako Lehen Erabilerarako baimena ematea, U.E. leian eraikitako 24 etxebizitzek osatzen duten portal biei Mendieta auzoko 78 eta 79 zenbakiak emanez.
- **Azaroaren 11ko 2008/101 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** A.A.I.k egindako eskaera onartu eta Ajangizko Udalean lan aintzinasuna 1995eko otsailaren 1etik aurrera kontutan hartzea.
- **Azaroaren 13ko 2008/102 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Explotaciones Forestales Duñabeitia enpresari, Mendiko basotik egurra ateratzeko herri bideen erabilerarako baimena ematea.
- **Azaroaren 13ko 2008/103 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Karmelo Crespo Ormaetxea eta Idoia Magunagoikoetxea Gonzalez jaun-andreak 2003an aurkeztutako 1.254,91 euroko bermea bueltatu, 2008ko alokairua esleitzeko prozeduran jarritako 150 euroko behin-betiko bermea itzuli eta 2008ko kontratua sinatuta, 900,00 euroko bermea jartzeko eskatzea.
- **Azaroaren 17ko 2008/104 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** M.E.A. eta A.H.B.k Udaletxean 2008ko urriaren 9an (549 sarrera zbkia.) aurkeztutako idatziaren bitartez proposatutako etxebizitza eskuratzeko aukera aldaketa eskaera epresuki ezeztatzea.



*Ajangizko Udala*

- **Azaroaren 17ko 105/2008 ZENBAKIDUN ALKATETZAREN DEKRETUA.-** Udal aurrekontuko 4/2008 kreditu aldaketa espedientearen hasiera onarpena.
- **Azaroaren 21eko 2008/106 ALKATETZA DEKRETUA.-** Udal aurrekontuko 5/2008 kreditu aldaketa espedientearen hasiera onarpena.
- **Azaroaren 24ko 107/2007 ALKATETZAREN EBAZPENA.-** Kreditu gaikuntzen erregimenaren bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea onestea, 14.768,60 euroko zenbatekoaz

### **3.- AJANGIZKO UDALEKO 2009 URTERAKO ORDENANTZA FISKALEN ONARPENA, BEHAR BADA.-**

Alkateak, Ajangizko Udaleko 2009 urterako Ordenantza Fiskalak aurkeztu ditu. Ajangizko Udaleko 2009 urterako Ordenantza Fiskalak aztertuta eta ekonomiaren egoera orokorra aintzat hartuta, bizibidearen kostua alde batera utzita %2,5eko igoera planteatzen da, udal konpromesua aurrera eramane eta herritarrei kargu gehiegirik ez sortzeko asmoarekin.

Roman Etxeandia jaunak, bere ustetan zergak bizi kostuaren arabera igo beharko liratekela aipatzen du, gero bizi kostua eta benetan kobratzen den arteko diferentzia eguneratzeak gehiago kostatzen baitu.

Alkateak ekonomiak aurton bizi duen egoera bereziak dakarrela proposamen hau aipatzen du. Bere ustetan zaborren zerga da arazorik gehien sortu dezakeena, izan ere zabor bilketaren gastua jasotzen den dirua baino askosaz ere handiagoa baita.

Angel Luis Uribarri jaunak proposamen modura zergak %2,5ean igo eta zaborren zerga %4a igotzea proposatzen du, batez ere 2009 urterako olio bilketarako zerbitzu berria martxan jarriko dela jakinda.

Aipatutakoa kontutan hartuta eta Hazienda Batzordeak aurkeztu duen proposamena aintzat hartuta, Ajangizko Udal Osoko Bilkurak aho batez ebazten du:

**Lehenengo.-** Ondoko Ordenantzen onarpen edo aldaketaren behin behineko onarpena:

- Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga araupetzen duen udal ordenantza fiskala
- Zerbitzu publikoak eskaini eta jarduera administratiboak burutzeagatik ordaindu beharreko tasen ordenantza arautzailea.
- Baso aprobetxamenduak ateratzeko eta udal titulartasuneko baso bideen erabilera arautzen duen udal ordenantza fiskala.



*Ajangizko Udala*

Zergak %2,5eko igoera izango dute, zabor bilketari dagokion zergak izan ezik. Azken honek %4ko igoera izango du.

**Bigarren.-** Behin behineko onarpena jendaurrera zabaltzea, iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hogeita hamar eguneko epean interesdunek agiriak azter ditzaten eta izanez gero, dagozkion erreklamazio eta iradokizunak aurkez ditzaten, Toki Araudiaren Oinarriak arautzen dituen 7/1989 Legeak, bere 49. Artikuluan eta Toki Ogasunak arautzen dituen 5/1989 Foru Araudiak, 16. Artikuluan xedatutakoaren arabera.

**Hirugarren.-** Jendaurreko epean elegiterik aurkeztuko ez balitz, behin behineko akordioa behin betiko bilakatuko da.

#### **4.- MAIER-MENDIETA LANDABIDEA EGOKITZEKO LANEN 1. FASEKO 2. ZIURTAGURUAREB ONARPENA, BEHAR BADA.-**

Ajangizko Udalak 2008ko abuztuaren 19an ospatutako batzarrean, besteak beste, Maier-Mendieta landabidea egokitzeko lanak (I. Fasea) CONSTRUCCIONES INTXAUSTI S.A., enpresari esleitzea onartu zuen, guztira 163.203,16 euroko kostuarekin.

2008ko urriaren 23an ospatutako osoko bilkuran, 82.930,07 euroko lanen 1. Ziurtagiria eta Construcciones Intrxausti S.A.k aurkeztutako A08-181 faktura onartu ziren.

Lanen zuzendaria den Carlos Ortiz de Zarate jaunak, lanen 2. Ziurtagiria aurkeztu du 42.221,37 euroko kostuarekin. Ziurtagiriari, Construcciones Intxausti S.A. enpresak 42.221,37 euroko kostu orokorarekin aurkeztutako 2008ko urriaren 31ko A08-212 faktura eransten zaio.

Aurkeztutako dokumentazioa kontutan hartuta, Udal Osoko Bilkurak aho batez ebatzen du:

1.- Maier-Mendieta landabidea egokitzeko lanen I. faseko bigarren ziurtagiria onartzea, 42.221,37 euroko kostu orokorarekin.

2.- Construcciones Intxausti S.A. enpresak aurkeztutako 42.221,37 euroko kopuru orokorra duen 2008ko urriaren 31ko A08-212 faktura onartzea.

3.- Ebazpen honen berri interesdunei ematea jakitun izan daitezen eta dagozkien ondorioak sortu ditzan.

Alkate jaunak, Carlos Ortiz de Zarate jaunak, Maier-Mendieta landabidea egokitzeko I. faseko lanen zuzendariak aurkeztu duen likidazio proposamena aurkezten du. Proposamen horren arabera, lanen kostu orokorra 204.588,13 eurokoa litzateke, esleipen prezioa baino 41.384,97 euro gehiago alegia.

Proposamenarekin aurkezten duen txostenean, likidazio horren zergatia azaltzen du, lanak burutu eanean aurrekontua gora egin duten zenbait aldaketa suertatu bait dira. Horietako batzuk, neurketen igoerari dagozkio: ikusgarritasuna hobetzeko muinoa kentzea, bideko ezponden



*Ajangizko Udala*

hobekuntza eta aldatz handiena duten lubeten egonkortsuna hobetzea. Beste batzuk berriz lan unitate berriei dagozkie: proiektuan jarritako trafikoa moteltzeko banden ordeztu beharreko altxatutako pasuak, seinaleak, kontenedorearen zolarria, egurrezko segurtasun barrera, metalezko segurtasun barandila eta barrera, pretilen bukaera eta “cola de pez” arrunt erako terminalak.

Teknikariak txostenean adierazitakoaren arabera lan hauek burutzea beharrezko ikusten du, lanok bidearen funtzionaltasun eta segurtasuna hobetzen dutelako.

Adierazitakoa kontutan hartuta, Udal Osoko Bilkurak aho batez ebazten du hobekuntza lan horiek burutu eta Carlos Ortiz de Zarate jaunak aurkeztutako likidazio proposamena onartzea, guztira 204.588,13 euroko kostua onartuz.

#### **5.- MENTZETA AUZORA DOAN LANDABIDEA EGOKITZEKO LANEN II. FASEKO 2. ZIURTAGIRIAREN ONARPENA, BEHAR BADA.-**

Ajangizko Udalak 2008ko abuztuaren 19an ospatutako batzarrean, besteak beste, Mentzeta auzora doan landabidea egokitzeko lanen II. Faseko lanak CONSTRUCCIONES INTXAUSTI S.A., enpresari esleitzea onartu zuen, guztira 117.120,00 euroko kostuarekin.

2008ko urriaren 23an ospatutako osoko bilkuran, 29.821,89 euroko lanen 1. Ziurtagiria eta Construcciones Intrxausti S.A.k aurkeztutako A08-182 faktura onartu ziren.

Lanen zuzendaria den Igor Madariaga ingeniariak, 41.047,90 euroko lanen 2. Ziurtagiria aurkeztu du, burututako lanen adierazle. Ziurtagiriari, Construcciones Intxausti S.A. enpresak 41.047,90 euroko kostu orokorrekin aurkeztutako 2008ko urriaren 31ko A08-213 faktura eranstean zaio.

Aurkeztutako dokumentazioa kontutan hartuta, Udal Osoko Bilkurak aho batez ebazten du:

1.- Mentzeta auzora doan landabidea egokitzeko lanen II. faseko bigarren ziurtagiria onartzea, 41.047,90 euroko kostu orokorrekin.

2.- Construcciones Intxausti S.A. enpresak aurkeztutako 41.047,90 euroko kopuru orokorra duen 2008ko urriaren 31ko A08-213 faktura onartzea.

3.- Ebazpen honen berri interesdunei ematea jakitun izan daitezen eta dagozkien ondorioak sortu ditzan.

#### **6.- KREDITU GEHIGARRIEN BIDEZ EGIN BEHARREKO KREDITU ALDAKETARAKO 4/2008 ESPEDIENTEA ONARTZEA, BEHAR BADA.-**



Ajangizko Udala

Ajangizko Udalak 2008 aurrekontua aldatu beharra ikusi du, irisgarritasuna bermatzeko lanek sortutako kostuei aurre egiteko; hori dela eta gehikuntza bidezko kreditu aldaketa proposatzen da dudiruzaintzako gerakinaren gain.

<b>GEHITU BEHARREKO PARTIDAK PARTIDAS A INCREMENTAR</b>	<b>KOPURUA CUANTIA</b>
121.62400	25.000,00 €
121.16004	749,03 €
121.13000	887,00 €
121.12100	4.050,00 €
460.62501	30.600,00 €
730.62810	12.430,89 €
<b>GUZTIRA / TOTAL</b>	<b>73.716,92 €</b>

<b>GUTXITU BEHARREKO PARTIDAK PARTIDAS A DISMINUIR</b>	<b>KOPURUA CUANTIA</b>
Remanente líquido de tesorería	73.716,92 €
<b>GUZTIRA / TOTAL</b>	<b>73.716,92 €</b>

Aldaketa honek, kreditu gehikuntza suposatzen duenez, abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauko 34.3 artikulua araututakoaren arabera, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da.

Hau guztia kontutan izanda, Udal Osoak aho batez onartzen du:

**Lehenengo.-** Kreditu gehiketaz egindako 4/2008 aurrekontuaren aldaketa behin behinez onartzea.

**Bigarren.-** Ebazpen hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea, interesdun direnek dagozkien elegiteak aurkezterik izan dezaten.

**Hirugarren.-** Elegiterik aurkeztuko ez balitz, proposatutako aldaketa behin betiko onartutzat joko da.

**Laugarren.-** Ebazpen honen berri udal kontuhartzaitzari ematea, beharrezko diren kontabilitate aldaketak egin daitezkan.

**7.- 2009 URTERAKO ETXEETAN ERABILTZEN DEN OLIO HONDAKINA BILTZEKO ZERBITZUA ESKAINTZEKO KONTRATUAREN ONARPENA, BEHAR BADA.-**

Alkate Udalburuak, 2009 urtean etxeetan erabiltzen den olio hondakina biltzeko zerbitzua eskaintzeko aukeraren berri ematen du. Horretarako RAFRINOR S.L. enpresarekin



## *Ajangizko Udala*

harremanetan jarri eta enpresarekin egindako proposamena azaltzen du. Olio biltzeko bi edukiontzi jarriko lirateke, bata Mendieta eta bestea Kanpantxun. Edukiontzi horien ardura osoa enpresarena izango litzateke, eta olio bilketa hiru hilabeterik behin egingo litzateke. Zerbitzu honen kostua udalarentzat 1.712,00 euro da urtero (BEZ barne).

Alkateak aurkeztutako kontratu proposamena aztertuta, bertaratutako zinegotziek aho batez onartzen dute:

**Lehenengo.-** 2009ko urtarrilaren 1etik aurrera RAFRINOR S.L. enpresarekin etxeetan erabiltzen den olio hondakinabiltzeko zerbitzua kontratatzea, urteko 1.712,00 euroko kostuarekin (BEZ barne).

**Bigarren.-** Alkate Udalburua RAFRINOR S.L. enpresarekin sinatu beharreko kontratua sinatzeko ahalmentzea.

### **8.- ERREGU ETA GALDERAK.-**

- Alkate jaunak, Mendieta auzoko rotonda dela eta 2008ko azaroaren 13an Bizkaiko Foru Aldundia, Bizkailur eta Ajangizko Udalaren arteko hitzarmena eta batera bidearen zesioa sinatu zela aipatzen du. Komentatu diotenez, lanak berrehala hasteko omen dira. Lan hauek direla eta, Udalak langile bi kontratatzea eskatu diola Bizkailurri aipatzen du, lanetan inor behar izan ezker, herrian langabezian dauden pertsonak badirela eta. Hori dela eta, herrian bando bat zabaldu da lanerako poltsa bat sortu asmoz, suerta daitezkeen lanetarako prest egon daitezkeen jendea apuntatu daiten. Lanik balego, horretarako prest leudeketen pertsonen artean zozketa egingo litzateke.

- Gernikako industrialdeari dagokionez, bariantea egin zenean Ajangizko zenbait lur Gernika aldean geratu zirela azaltzen du Alkateak. Gernikak lur horiek bere industria plan barruan sartu zituela konturatzean, Ajangizko Udalak lur horiek erreklamatu zituen, eta ondorioz bi udalen arteko hitzarmena sinatu zen. Orain, hitzarmen hori aurrera eraman asmoz, Ajangizko Arau Sorosgarriak aldatu beharra dago, landalur modura kalifikatutako lur horiek industria lurra izan daitezen. Ajangizko Udalak eskaera Urdaibaira bidaliko du aldaketari oneritzia eman diezaion.

- Maierrera doan argia, Ajangizko lurretan egindako kanalizaziotik doazela eta, Iberdrolari okupazio horren ordainketa eskatu zaio. Kopuru horiek Iberdrolak urte guzti hauetan Gernikako Udalarari ordaindu dizkio, eta orain Gernikako Udalarari kantitate horiek erreklamatzeko dizkiogu. Gainera Iberdrolari 1991tik aurrera izandako fakturazioaren berri emateko ere eskatu zaio, horren arabera kantitateak erreklamatu ahal izateko. Gero ikusiko da benetan zer lortu ahal den. Egoera hau Maierrekin bere helbidea Gernikan mantendu duelako izan da. Maierreri beraz helbidea Ajangiz jarri dezala eskatu behar zaio.

Bestalde Maier enpresa aurreko bidea asfaltatzen dabil egunotan, urbanizazio proiektu barruan bere kargu.



## *Ajangizko Udala*

- Maier Udalarekin harremanetan jarri da, antolatzen dabilen aste kulturalaren barruan abenduaren 13an Ajangizen bertso afari bat eta mus eta briska txapelketak antolatzeko... Udalarri bestalde Kultur Etxeko aretoa usteko eskatzen diote.
- Kultur Etxea dela eta, abenduaren 21erako inaugurazioa antolatzen dabiltzala aipatzen du Alkateak. Egun horretarako aurrekoa, triki trixa eta luntx bat antolatu dira, eta herritar guztiei gonbidatuko zaie Kultur Etxea ezagutzera etortzeko.
- Beñat Erezuma jaunak Kultura Saitetik gabonetarako antolatzen dabilzan programaren berri ematen du: abenduaren 7an emakumeen bazkaria, 13an bertso afaria eta mus eta briska txapelketa, 16an musika ekitaldia herriko umeekin, 21ean Kultur Etxearen inaugurazioa, 24an Olentzeroren etorrera, 26an PINera bidaia, 30ean pelikula... Gainera umeentzako tailerrak ere antolatuko dira eta urtarrilaren 2an egin dituzten lanen erakustaldia antolatuko da. Ekintza guzti hauek azalduz triptiko bat prestatuko da etxeetara bidaltzeko.

Eta beste aztergairik ez dagoenez, batzarra bukatutzat ematen da gaueko hamarrak laurden gutxi direnean, eta honen sendespena egiten dut Udaleko bitarteko Idazkari naizen aldetik, Alkate Lehendakariaren oniritziarekin.

**ALKATEA**

**BITARTEKO IDAZKARIA**